

«Abe Osheroff boluntario amerikanoaren hitz hauek ditut gustoko: 'Espainiako gerran ikasi nuen, borrokatzeko ez dagoela irabaziko duzula jakin beharrik. Eusteak bakarrik asko balio dio buruari, moralari. Zerbait gaizki dagoela jakin eta hura konpontzeko borrokatzen ez baduzu, zeure zati bat galtzen duzu'»

MIGUEL USABIAGAK NOBELA BERRIA: 'EL ALCALDE DE FLORISDORF'

«Francoren kontra borrokatu zuten kanpotar haiek zein ziren? Haien berri eman nahi dut»

Nobela berria argitaratu du Miguel Usabiaga hernaniarrak. Liburuak kontatzen du hiru atzerritarren istorioa, Burgoseko kartzelatik ihes egiteko plana, hain zuzen ere. Benetan gertatuko kontuetan oinarritu da Usabiaga nobela idazteko.


FLORISDORF herria Viena ondoan dago, eta hango Alkatea Burgoseko kartzelan egon zen atxilotuta, Francoren kontra borroka egiteagatik. Hain zuzen huraxe da Miguel Usabiaga hernaniarraren nobela berriko protagonista. Joseph Orlitsch hain zuzen. Hura, Marcel Eichner, eta Paul Keller hiru atzerritar ziren, Burgosko kartzelan zeudena, Francoren kontra borrokatu zutelako atxilotuak. Hirurek plan bat egin zuten, Burgoseko kartzelatik ihes egiteko. 1949 urtea zen, frankismoa bete betean zegoen, eta Burgosko kartzela josita zegoen errepublikanoz, komunistaz eta antifrankistaz.

«Maki atzerritarrei buruz ez da asko hitz egin izan»

Miguel Usabiagak nobela historiko bat idatzi du, Gerra Zibilaren ondorengo urteetako, eta Burgosko kartzelan gertatu zirenetan oinarrituta. Gutxien komentatzen diren kontuei buruz hitz egin nahi du hernaniarrak: «Makiak ziren eta atzerritik etorriak. Maki atzerritarrei buruz ez dakigu ia ezer. Francoren kontra borrokatu zuten atzerritar haiek zein ziren? Haiei buruz hitz egin nahi dut».

Hilabete batzuetako plana

Burgoseko kartzelan zeuden hiru atzerritarrok izen oso ona zuten, errepublikaren alde borrokatu zutelako, muxu truk. Hiruren artean ospa egiteko plana egin zuten, eta hilabeteak pasa zituzten hasi eta bukatzen. «Tunel bat eginda



Miguel Usabiaga Leokako labaderoan. Usabiagak dio, Burgosko kartzelako labaderoan botatzen zutela iheserako tunela egiterakoan ateratzen zen lurra eta hondarra.

«Komunistak ziren eta kausa bat zuten. Naziei ihesi aldegin zuten euren herritatik: Austria, Alsazia eta Poloniatik».

«Hiru atzerritarrok Burgosko kartzelatik ospa egiteko plana egin zuten, eta hilabeteak pasa zituzten hasi eta bukatzen».

«'Korneta' sartu zirelako traidoretzat jo zituzten, baina inork ez zekiena zen euren buruetan zer asmo zebilen».

ihes egitea ez da erraza, eta prestaketa dezentekoa eskatzen du. Orduan *korneta* esaten zitzaion kartzelako funtzionarioen esanak betetzen zituzten presoek. Hiru hauek *korneta*

sartzea erabaki zuten, beren planak bete ahal izateko askoz leku hobean geratzen zirelako. Horregatik traidoretzat jo zituzten eta sekulakoak eta bi entzun behar izan zituzten,

baina inork ez zekiena zen euren buruetan zer zegoen...»

Sinesten zutenaren alde
Benetan sinesten zutenaren alde borrokatu zuten atzerritar

haiek, Usabiagak dioenez. «Komunistak ziren, eta kausa bat zuten. Naziei ihesi aldegin zuten denek euren herritatik. Austriar bat, Alsaziar bat, eta Polako bat; lehendabizikoa, Viena ondoko Florisdorf herriko Alkatea, Brigadista sartu zen Errepublikaren alde borroka egiteko, eta gerra galdu ostean maki moduan sartu zen gerrilleroekin, frankoren diktadura hankaz gora bota nahian. Beste biak Frantzian aritu ziren Hitlerren kontrako erresistentzian, eta han gerra irabazita, makiekin bat egin eta Espainiako diktaduraren kontra borrokatu ziren».

Datuetan eta aitaren kontakizunetan oinarritua

Ez da kasualitatea Miguel Usabiagak kontu horiek kontatzea. Bere aita, Marcelo Usabiaga ezaguna da, Gerra Zibilean borrokatua eta urteak Burgosko kartzelan pasatua. Aitaren gertaerak oraindik ere entzuten ditu Usabiagak, eta hark esandakoak dira nobela honetan jarri dituenak. Ahozko kontakizunaz gain, artxibo lan izugarria egin du Miguelek: Avila, Burgos, Madrid, Mosku, Viena...

Salgai, liburu dendetan

Miguel Usabiagak laugarren liburua du hau. Aurretik publikatuak ditu besteak be *El Caso Martana*, saria jasotakoa, edo oraintsu: *La Joven Guardia*, bere aitaren gertaeretan oinarritua. *El alcalde de Florisdorf* liburua salgai dago, 12 euroan, liburu dendetan. Argitaletxea: Ediciones Irreverentes. ||

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK
(GURE INGELESETXEA)

Zorionak Cambridge azterketak gainditzeagatik:

-Ane E. Advanced (Europako C1) (%73)	-Mikel G. First (B2)
-Leire G. Advanced (C1)	-Iwan G. First (B2)
-Oier G. First (Europako B2) eta EOI (B2)	-Eva B. First (B2)
-Maialen D de C. First (B2)	-Mikel Vergara First (B2)
	-Asier E (F) PET (B1) (%88)

BERRIZ ERE, GUZTIOK GAINDITU DUTE.

Aurre-matrikula egiteko, utzi zure telefono zenbakia gure kontestadore automatikoan: 943 331108.
2013-2014ko matrikula: irailaren 2-a. Ikastaro berria: urriaren 1-a.

Deitu (Alan edo Joe) **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - I

EDOZEIN KLASeko LURRAK JARTZEN DITUGU

PVC MOKETA LAMINATUA PARKETA

PAPER PINTATUETAN 10% DTO

EROSKETAK ETXERA BIDALTZEN DIZKIZUEGU

Laminatua AC4 Hidrofugoa kolokatua eta guzti. 26,90€/m²

ERROKOLOR ZENTRUA MARGOAK
Landaribar, s.l.

astehenetik ostiralera
7:30 - 13:00 / 15:15 - 19:00
Larunbatetan
9:00 - 13:00

Procolor

943 552131
KARDABERAZ 45, HERNANI

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Pixka bat beroagoa izango du gaur eguna, eta sargori punta ere hartu lezake. Eguzkia nagusi, iluntzeko lainoak azaldu arte. Min.16° / Max.26°
BIHAR Haizeak hego ekialdetik joko du eta horrek temperaturak asko igoko ditu. Bero itoa eguerdi partean, eta eguzkia nagusi, ia laino izpirik gabe. Min.18° / Max.33°
 (euskaime)

AHTAREN KONTRAKO MARTXA

Gaur iritsiko dira Hernanira AHTaren kontrako bizikletak

Altsasutik uztailearen 25ean atera ziren, eta Donostiara ostegunean iritsiko dira. Gaur Hernanitik pasako dira; 11:15etan Plaza Berrin.

GOIZEKO 11:15etan iritsiko da Hernanira AHTaren kontrako bizikleta martxa. Protesta ekitaldia egiten ari dira uztailearen 25etik abuztuaren 1era. Altsasun hasi eta Donostiara bidean pasako dituzte AHTak egin asmo duen ibilbideko herriak, eta

Hernaniren txanda gaur izango da. Añorgatik iritsiko dira Hernanira, 11:15ak aldean. Plaza Berritik pasako dira ordu horretan, eta Osinagara joango dira, AHTaren obrak ikustera. Hortik Astigarragara joango dira, eta ostegunean iritsiko dira Donostiara.

«10.000 miloi euro xahutuko dituzte» AHTaren kontrako martxan erabat errepikatzen ari dira bi ideia nagusi: «AHTak ondorio ekologiko latzak ekarriko ditu, eta 10.000 miloi euro xahutuko dituzte zentzugabekeria horretan». ||



Imanol Paolla, iaz.

San Inazio eguna eta festa, bihar, Santa Barbaran

Bazkari txartelak salgai daude gaur iluntzera arte, Aralar eta Kitto tabernetan, 25 euroan.

EGUN haundia izango da bihar Santa Barbara gaian, San Inazio eguna ospatuko baitute bertan, Hernaniko eta inguruetak jendeak. Goizeko lanak trikitixa eta bertsolariak egingo dituzte, eta eguerdian, 12:00etan, meza izango da tontorreko ermitan. Herri kiroltan zein baino zein ariko dira Hernaniko bi koadrila, 8 lagun inguru: aizkoran, lokotxetan, motozerrarekin... Festarik haundiena hor izaten da, baina bertan gero eta jende gehiago gertzen da, eta haiek ere bazkariak, toka, jolasak eta dantzaldia izango dituzte. Bazkari

txartelak salgai daude 25 euroan, Aralar eta Kitton, gaur iluntzera arte. ||

EGITARAUA

- 10:00** Trikitilariak
- 11:30** Bertsolariak
- 12:00** Meza ermitan
- 13:00** HERRI KIROLAK: Aizkora, lokotxak, korrika eta motozerra.
- 14:00** Herri bazkaria: marmitakoa, txuleta... txartelak: Aralar, Kitto (25 €)
- 16:30** Lagunarteko Toka Txapelketa
- 16:30** Haur joko eta txokolatada
- 17:30** Erromeria
- 19:00** Herrira jaitsiera

❖ PLENOA

Zazpi puntu gaur Plenoan, eta tartean ariko dira Santa Barbarako parkeari buruz

Plenoa bilduko da gaur Hernaniko udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Zazpi punturi buruz ariko dira, eta tartean dute Santa Barbarako landa-parkeari buruzko puntu bat. ||

◆ ESKUBALDIA

Bideoa grabatzeko hitzordua, gaur

Eskubaloiarekin zerikusia izan duten hernaniar guztiei dei egin diete azaltzeko kiroldegira, gaur, 18:00etan. Eskubaloia historia bilduko duen bideoa grabatzen ari dira, eta horretarako da hitzordua. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Mauer piano bertikala salgai. Beltza, 3 pedalekin, ia erabili gabea. Deitu: 652 762 305

Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ERREMONTA - KUTXA SARIKO PREBIA



Urtasun, San Fermin Torneoko finalean. (Arg.: Joseba Zabalza - Bostok Photo).

Urtasun eta Ion, banakako txapelketan sartzeko gosez

Banakako Txapelketa Nagusia abuztuan jokatuko da eta han jokatzen aukera izango du gaur irabazten duenak, Galarretan.

URTASUNEK oraintxe irabazi dio Etxeberria IVari, denbotetan ahaztuko ez den partidu gogor eta eder horietakoa. Ion berriz, zai dago. Zarautz eta Irurita neurtuko dira gaur Galarretan, partidu estelarrean, 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarrenan. Irabazten duenak lortuko du Buruz Buruko Txapelketarako pasea.

Urtasun ausardiz, Ion buruz Sekulako indarra eta ausar-

dia dauzka Urtasunek. Ionek berriz seguritatea eta lasaitasuna. Urtasunek irabazi berri dio Etxeberria IVari, egungo promesa onenetakoari; Ion berriz iazko lanari esker zai egon da azken momentura arte, prebiako finalean.

Buruz Buruko Txapelketa Nagusia, Kutxa Saria abuztuan jokatuko da, eta han jokatu ahal izateko pasea dute jokoan gaur. Prebia jokatu duten erremontista guztietatik bik lortuko dute

txartel hori. Juaristik lortu du horietako bat, eta gaur jokatuko dute bigarrena.

Ostegunean aurkezpen ofiziala, Donostian

Datorren ostegunean aurkeztuko dute Buruz Buruko Kutxa Saria Donostian, Gari-bai kaleko Kutxabanken prentsa aretoan, 12:00etan. Bertan izango dira egungo txapelduna, Urtasun, eta egungo erremontista onenak; tartean, gaurko irabazlea. ||